LOTURAK
ARTIUMEN HEZKUNTZA PROIEKTUA 2020-2021 IKASTURTEA

Loturak (guztiarekin eta guztiekin)
- Norbere buruarekin: sentipenekin, emozioekin, biografiekin, beldur eta txerekin…
- Beste ikusmolde batzuekin: besteekin, azalpenik ez duenarekin, esploratu gabearekin, desberdinarekin, beste ideia batzuekin…
- Inguru hurbilarekin: auzoarekin, hiriarekin, haren urbanismo eta arkitekturarekin, jendearekin…
- Aniztasunarekin: adinekoekin, beste era bateko gaitasunak dituzten haurrekin; bestelako gorputz, buru, forma eta koloreekin…
- Edozein maila, adin eta ikasgairen eskola-curriculumarekin.

Tokia irabaziz

Museoa gertakizun-paisaia bat da, non zabaltzen diren garai batzuetako eta besteetako sentipen sakona nola edo hala azaltzen duten proposamen plastikoak. Goren-une bat ere bada, non gure ikasketa-prozesuko etapa batzuetan eta besteetan lehendabiziko aldiz aurkezten zaizkigun ideiak ernatu eta materia ukigaia sortzen den, inolako lotsa edo zentsurarik gabe. Horregatik, Artium eta, bereziki, haren Hezkuntza Saila, zertze batetik abiatzen den lan-testuinguru baten erara ulertu behar da. Ikasgeletako ikasketa-esperientzia luzatzen eta egiaztatzen den eta neurriak jartzen zaizkion leku baten eran.
Artearekiko eta **zeure buruarekiko** esperientzia hurbil bat eskaintzen duen tresna metodologiko gisa artea darabilen hezkuntza erakunde bat da Artium.

Harrera ona eta partaide izatearen sentipena

Hezkuntza Sailaren tresna guztien helburua da Museoko era guztietako publikoei bere lekua ematea eta artearen esperientzia ziurtatzea. Artiumen proposamenak behaketaren, elkarrizketaren, ikerketaren eta jardueran parte hartzen duten eragile guztien arteko lankidetzaren emaitza dira. Jabetzen gara munduan gertatzen diren aldaketez eta, beraz, gure programa guztiak etengabeko bilakaeran daude gizartearen behar berrietara egokitzeko.

ESPAÑA FRANQUEO PAGADO CARTAS

LOTURAK

Artiumen hezkuntza-proiektua
2020-2021 IKASTURTEA

NOLA?
Nola egin eskolarako programen eskaria

Zeinahi dela ere irakasten duzun ikasgaia nahiz ikasgaiak, zeinahi dela ere zure ikasleen adina, arte garaikidea hezkuntza-baliabide berritzaile gisa erabiltzeko aukera eskaintzen dizu Artiumek.
Eskolarako programa guztiak doakoak dira.
Zuk aukeratu zein hizkuntzatan egin nahi duzun: euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez nahiz frantsesez.

IZENA EMATEKO EPEAK:
2020ko irailaren 2tik urriaren 18ra
Epez kanpo izena emateko edota beste programa batzuei buruzko informazioa izateko deitu **945209020** zenbakira edo begiratu **www.artium.org/edu** webgunean.

HEZKUNTZA KOMUNITATEARENTZAKO PROGRAMAK

Irakasleentzako programak

Artiumen irakasleentzako egiten diren programen helburua da hezitzaileei gakoak ematea Museoa baliabide pedagogiko gisa ulertzen laguntzeko, eta hark curriculuma aberasteko eta hezkuntza komunitateari lehen mailako kultur esperientzia eskaintzeko duen ahalmena erakustea.
Artiumek antolatzen dituen **prestakuntza saioetan** hezkuntzarako tresna berritzaile gisa aztertzen da Museoa, eta haren bidez eskolako curriculumaren alderdi eta fase guztiak nola landu ikasten da.
Eusko Jaurlaritzaren hezkuntza berriztatu eta hobetzeko zerbitzuekin batera (Berritzeguneak) **Hezkuntzaren berrikuntzarako mintegiak** egiten ditu Artiumek. Parte-hartzaile guztiek elkarlan estuan lan egiten dute, unitate didaktikoak diseinatzeko eta materialak garatzeko ideiak emanez; hori guztia mintegiko saioetan frogatzen da gero ikasleekin erabili aurretik.
Oinarrizko ideia da Museoa irakasleen laguna dela, eta Hezkuntza Sailetik gure baliabide guztiak jartzen ditugu haien eskura.

Eskolarako programak

Artiumen eskolarako programen xedea da guztientzako (ikasle, irakasle eta Museoko hezitzaile) elkarrizketarako esparru bat sortzea. Ikuspuntu hori gogoan dugula heltzen diegu eskolako curriculumaren edukiei talde bakoitzari eta haren beharrei egokitutako prozesu batean.
Hona adibide batzuk:

ARTIUM IBILTARI
Programa hau bi saiotan egituratzen da: lehendabizikoan ikastetxera joaten gara. Bigarren saioa Museoan egiten den lantegi-bisita bat da.
Artea abiapuntu harturik curriculumeko zenbait lotura egiteko programa egokia da, ondoko gaien inguruan, esate baterako:
- Jendea. Pertsonak eta gorputzak. Pentsatzea eta sentitzea. Ni eta bestea. Erretratuak eta autorretratuak. Istorio bila.
- Tokiak. Hemen, han. Publikoa eta pribatua: nirea eta guztiona. Etxetik eskolara eta Museora.
  Zer kontatzen digu Museoak?
- Gauzak. Erabilgarriak, alferrekoak. Egiazkoa, alegiazkoa. Zer kontatzen digute gauzek? Artea: zergatik da hau artea?
- Artista. Hizkuntzak, erabakiak, prozesuak, lanbideak. Zer kontatzen digute artistek eta zer ikusten dugu guk? Egiazkoa eta alegiazkoa: ikusi egiten dut, imajinatu egiten dut.
- Urtaroak. Zikloak eta aldaketak.
- Zergatiak. Asmoa, garaikidea. Zergatik uste duzu hau artea dela?
- Artea eta gizartea. Beste ideia batzuk. Testuingurua. Artea eta munduarekiko harremana. Sinesten dut?
- Etorkizuna. Nolakoa uste dugu izango dela orain eta hemen?

ALTXORRA LANTEGI BISITA
Askotariko edukiak izan ditzaketen bisita hauetan ondarearen aberastasuna aztertzen da Artium Bilduma oinarri harturik.

LOTURAK. ZINEMA ETA ARTE GARAIKIDEA
Zinema eta arte garaikidea uztarturik, Batxilergoan eta DBHn dauden ikasleek beren eguneroko bizitzan aurkitzen dituzten gaiak aztertzeko eta haien inguruko eztabaida eta gogoetari atea zabaltzeko.

ARTEA, FILOSOFIA… ETA BIZITZA. DBHko eta Batxilergoko ikasleentzako bisita-solasaldia
Solasa bultzatuko den bisita hauetan filosofia ikasgaia erabiliko da Museoko erakusketekin lotura egiteko.

FORUEN PLAZATIK ARTIUMERA. Hirigintza, arkitektura eta arte garaikidea
Hirian barrenako ibilaldia hirigintzarekiko eta arkitekturarekiko begirada kritikoa lantzeko, arteak ematen dituen lanabesak erabiliz. Vitoria-Gasteizko Udalarekin elkarlanean.

Unibertsitate-ikasleentzako programak

BISITA EZAZU MUSEOA ZURE IKASLE TALDEAREKIN
Beren etorkizuneko lanean Museoa nola erabil dezaketen ikasteko lehen hurbilketa praktiko bat. Irakasle Eskolako, Arte Ederretako, Artearen Historiako, Turismoko, Haur Hezkuntzako eta abarretako ikasleei zuzendua.

ARTE GARAIKIDEAREN HASTAPENAK
Bisita-solasaldi honetan erakusketen gaiak hainbat ikasgairekin lotuko dira, esate baterako Filosofiarekin, Historiarekin edota Artearen Historiarekin.

BISITA MUSEOGRAFIKOA
Ikuspuntu museografiko batetik hurbilduko gatzaizkio bisita honetan Artium Museoari. Erakusketak, Museoaren Funtsak eta Bilduma bisitatuko dira. Artearen Historiako eta Arte Ederretako ikasleei zuzendua.

PRAKTIKALDI PROGRAMA
Hainbat unibertsitaterekin dituen hitzarmenen bidez, praktikaldiak egiteko aukera eskaintzen die Artiumek diziplina batzuetako eta besteetako ikasleei.

OROTARIKO PUBLIKOENTZAKO PROGRAMAK

Familientzako programak

Familiek esperientzia partekatu batez gozatzeko pentsatutako programak.
- *Artium txikia* 3 urtetik 5 urtera
- *FamiliArtium* 6 urtetik 12 urtera
- *Good Morning Artium* 6 urtetik 12 urtera

Gazteentzako programak

Musika hedatua. Lantegi hauetan musika elektronikoa abiapuntu harturik, eta oso modu esperimentalean, beste diziplina batzuk ere nahasten dira, hala nola performancea, bideoa, komikiak, marrazkia…

Adinekoentzako programak

Loturak. Vital Kutxa Fundazioarekin elkarlanean egiten den zinema-programa honek 8 saio izaten ditu urtean, urritik maiatzera.

Lorategia zaintzeko programan, bisita gidatuetan, bisita-solasaldietan eta abarretan ere parte hartzen dute adinekoek.

Banako bisitariarentzako programa

Museora lagunik gabe datorren bisitariarentzat Museoak tresna sorta bat diseinatu du, bisitari horrek esperientziaz ahalik eta gehien gozatzeko. Horretarako dokumentazio-guneak, aretoan bertako lantegi irekiak eta abar eskaintzen dira.

GIZARTE PROGRAMAK

Programak Anglo auzoarekin (Artium)

5 zentzumenen lorategia
Museoaren lorategiak, erdiko plazan kokatuak, zentzumenen bidez ikastea sustatzen du eta ondare naturalaren eta ondare artistikoaren arteko loturak aztertzeko aukera ematen du. Proiektu hau era guztietako publikoei zuzentzen zaie.

Artiumen lorategia eta haren zaintza
Zaintzaile talde bat prestatzen ari gara, Artiumen auzokoekin, guztion artean irtenbide iraunkorrak bilatzeko eta ondare naturalaren eta ondare artistikoaren arteko loturak lantzeko.

Baztertuak izateko arriskuan dauden pertsonentzako programak

Baztertuak izateko arriskua duten talde askorekin ari gara lanean.
Osasun mentalaren esparruko erakunde eta taldeekin garatzen ditugu jarduerak. Artearen bidez, bai Museoko aretoetan eta bai lantegietan pertsona bakoitzarentzako pentsatutako jarduerak proposatzen ditugu, artea mundua ulertzeko modu aparta delako ustean. Psikologiaren eta psikiatriaren esparruko talde eta profesionalen arduradun diren gizarte eragileekin egindako elkarlanaren emaitza dira programa horiek.
Abegia, loturak eta partaide izatearen sentipena lantzen ditugu hiriko erakunde, elkarte eta taldeekin.
Artium ibiltari programaren formatua lantzen dugu: lehendabizi haien zentrora joaten gara eta gero haiek etortzen dira gurera. Artiumek, hirian dagoen kultur erakundeak, eskaintzen dituen ahalbideak aztertzen ditugu. Bisita-solasaldi bat eta lantegi bat egiten dira, hizkuntza berri batean aritzeko eta guztion artean narrazio berriak sortzeko.

Beste era bateko gaitasunak dituzten pertsonentzako programak

Zentzumenen bidezko ikasketan oinarriturik, Artiumen Lorategiak sarrera gisa balio digu, gero Museoko aretoetan artelanak ikusi edo lantegi plastiko bat egiteko. Beste era bateko gaitasunak dituen talde bakoitzak arreta berezia eskatzen du eta, beraz, lankidetza dago gure programen oinarrian programa horiek banan-banan diseinatzen baitira talde bakoitzarentzat.

LOTURAK

Artiumen hezkuntza-proiektua
2020-2021 IKASTURTEA

Artium

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava